Erref. kodea: LAF-108-905

Izenburua: Gutuneria: MANTEROLA, Gabirel. [Ikus gainera: 104-557]

+

Tolosatik 1927-ko Azilaren 24-n

Gabirel Manterola Jaunari

Adichkidea,

Jainkoaren zuhurtziak laguntzen duen ber, jakitateak ez dukela kalterik, Baionako Jaun Aphezpikuari galdatu diot Tolosan urthea utz nezan, alemanaren eta frantsesaren barnachagotik ikasten. Jaz Uztaritzen irakasle, huna orai ni ikasle. Egun gochoak deramazkit hainbertze jakintsun, lankide, eta idaztien erdian.

Hemen nu bada jo zure hitzñoak. Lehenik zure hitz gocho hortaz eta argazki maitagarriaz

milesker! Bainan, bainan aithor dut iratchiki deiezun dirnak ez dautala halako atseginik eman — urrun da — Euskalzaleen-Biltzarreko ageriaren zuri igortzea adichkide-ezagutza bat nindaukalakotz.

Zure idazti ederrez, zer erranen dut? Hemen gaindi ez ohi dugula ezagutzen, are gutiago erabiltzen zuk hain aise eta maiteki derabilkazun mintzaire legun, labur, garbia. Asko burutarik heldu zaiku hori. Gure lanttoetan gogoak ez ditugu zuek bezenbat goititzen: aphal-aphal gaude, herrestan bezala; lore zonbait bai, izarrik ordean bat ere ez gure neurthitzetan. Lurrari ches egiterakoan, bertzenaz ere, zeri lot ez dakigu. Hizkuntza behardchko! Alta hitz edo izen berriak ez ditugu maite, arrotz eite bat mintzaiari baitemote gaitza. Aditza ere gehienetan hitz hainitzetakoa nahiago dugu ezen ez hitz bakar batetakoa. Ulert-errechago zaiku «ezar dezake», «dezarke» baino.

Hortik gogoari ez dirozu eman nolako atsegina ukan dudan zure «Goi-Izpi» en irakurtzen! Ezen eskuara maitagarri batean giristino-ikaskuntza mamitsu bezain kartsu bat jauntzirik zaude.

Urrechindorra itzali ere duzu; zarraizkon eliza-choria hura baino badelakotz, nere ustez.

Aratsalde huntan ontu bizpahiru neurthitz onhartuko dituztzu agian. Jakitatez ez baditut, bihotzez segurki egin ditut.

Uztaritzeko Ikastegirat igorriko diotet lehen-bai-lehen zuk emanik heldu zaiotena.

Berriz ere milesker eta bihotzetik agur

Piarres Lafitte

Institut Catholique
31 Rue de la Fonderie, 31
Toulouse
(Haute-Garonne)